# GR 38 ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

Ardoaren eta arrainaren ibilbidea antzina mandazainek eta merkatariek Bizkaiko arrantza-portu nagusien eta Arabako Errioxaren artean egiten zuten bidea zen, produktu horien eta beste batzuen merkataritzarako.

*La ruta del vino y del pescado era la ruta que antiguamente recorrían arrieros y mercaderes entre los principales puertos pesqueros de Bizkaia y Rioja Alavesa, para el comercio de estos y otros productos.*




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, jantziak, botikina, mugikorra…).

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, ropa, botiquín, móvil...).*

Ez piztu surik, horretarako diren lekuetan izan ezik, eta erretzailea bazara gorde zure zigarrokinak.

*No enciendas fuego, salvo en los lugares destinados a ello y si fumas llévate las colillas.*

Gomendagarria da mugikorraren bateria ondo kargatuta eramatea.

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

Ez irten seinaleztatutako bideetatik, errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

*No te salgas de los caminos señalizados, respeta el entorno y a los demás senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Urkiolako Parke Naturalaren mendigunea atzean utzita, etapa honetan babestutako beste kokagune batean sartuko gara, Urdaibaiko Biosfera Erreserban, hain zuzen ere, Oka ibaiaren arro hidrografikoa hartzen duen eremuan. Etapa hau ez da hain menditsua, baina, bitxia bada ere, gogorragoa da, arroren bat zeharkatu beharko baitugu bere goialdean, malda handiei aurre eginez. Durangaldea eta Busturialdea eskualdeen artean dauden baso, arro eta auzo nagusiak zeharkatzen ditugun heinean, ondare natural eta kultural aberatsa ezagutzeko aukera izango dugu.

*Dejando atrás el macizo montañoso del Parque Natural de Urkiola, en esta etapa nos adentraremos en otro enclave protegido, la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, que abarca la cuenca hidrográfica del río Oka. Se trata de una etapa menos montañera, pero curiosamente más dura, ya que tendremos que cruzar alguna cuenca en su zona alta, haciendo frente a fuertes desniveles. El esfuerzo se verá recompensado con el rico patrimonio tanto natural como cultural que tendremos la suerte de conocer a medida que atravesamos los principales bosques, cuencas y barrios, asentados entre las comarcas de Durangaldea y Busturialdea.*

29,7 km | 840 m | 9h 20´ | MIDE 1-2-2-4




1 Ingurunean badago arriskurik
*El medio no está exento de riesgos*

2 Bidezidorrak edo norabidea adierazten duten seinaleak
*Sendas o señalización que indica la continuidad*

2 Ferra-bideetan egindako ibilaldia
*Marcha por caminos de herradura*

4 6 ordutik gorako eta 10 ordura arteko benetako ibilaldia
*Más de 6 h y hasta 10 h de marcha efectiva*

## Bidezatia / *Tramo*
## DURANGO > MASKAKORTA

km 0 ······ **DURANGO.** Tabiratik alde zaharrera joango gara Uribarriko Santa Maria elizaren bila. Mendeetan zehar bere egurrezko arkupe monumentalaren azpian hiribilduaren asteroko azoka ospatu da. Ibaizabal ibaia zeharkatu ondoren, Ezkurdia Plazatik Frai Juan de Zumarraga kalerantz jarraitu eta Iurretako elizatean sartuko gara.

km 2,2 ······ **IURRETA.** Herriko plaza gurutzatu ondoren, BI-3341 errepidearen ondotik jarraitu eta eskuinetara joko dugu; Amatzako San Martin baselizan Erromaniko aurreko leiho bitxia ikusiko dugu. Jarraian Momoitioko San Juan ermitara igoko gara, eta bertatik Durangaldea eta Durangaldeko mendien bista bikaina aurkituko dugu. Santa Katalina ermitaren ondotik igaroko gara eta Oiz mendiaren hegoaldeko magaletik gora egingo dugu. Lasiar atsedenlekuaren aurretik pagadi leundu polit bat zeharkatu eta Maumeko portaleko harri higatuen ondotik igaroko gara Maume auzora jaitsi aurretik.

km 12 ······ **MAUME.** Maumeko baserrietatik Astakurutzeko bidegurutzera igoko gara, Urdaibai gaineko lehen panoramika aurkituz. Ondoren, Astoagako galtzadatik jaisten hasiko gara, GR 38.1 aldaera Lekeitiora desbideratzen den lekuraino, Maskakorta parajetik gertu, Oiz mendirantz igotzen den pista parean.

---

*km 0 ······ **DURANGO**. Desde Tabira encaminamos nuestros pasos al casco antiguo en busca de la iglesia de Santa María de Uribarri y su monumental pórtico de madera que albergó el mercado semanal de la villa durante siglos. Una vez cruzado el Ibaizabal, desde la Plaza Ezkurdia seguimos hacia la calle Fray Juan de Zumarraga y la cruzamos para entrar en la Anteiglesia de Iurreta.*

*km 2,2 ······ **IURRETA.** Tras cruzar la plaza, seguimos junto a la BI-3341 para desviarnos al poco a la derecha y visitar la rústica ermita de San Martín de Amatza, con su curiosa ventana prerrománica. Ascendemos a San Juan de Momoitio, desde donde disfrutaremos de unas espléndidas vistas sobre el Duranguesado y sus montes, y continuamos nuestro caminar pasando junto a la ermita de Santa Catalina para seguir ganando altura por la ladera sur del Oiz. Cruzamos un bonito hayedo trasmocho antes del área recreativa de Lasiar y pasamos junto a las gastadas piedras del Portal de Magunas antes de descender al barrio de Maume.*

*km 12 ······ **MAUME.** Desde los caseríos de Maume habrá que ascender hasta el cruce de caminos de Astakurutze, que nos regala la primera panorámica sobre Urdaibai, para comenzar el descenso por la calzada de Astoaga hasta el punto donde se desvía el GR 38.1 hacia Lekeitio, cerca del paraje de Maskakorta, en la pista de acceso al monte Oiz.*

KMZ

GPX



# ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA
# RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

GR 38

6a

## DURANGO > GERNIKA-LUMO

Km 29,7 | 840m | 9h 20´

eu es

EUSKADI BASQUE COUNTRY




DURANGO Km. 0 — IURRETA Km. 2,2 — MOMOITIO Km. 4,9 — LASIAR Km. 5,1 — MAUME Km. 12 — MASKAKORTA Km. 15,1

# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Maumeko portalea Durangaldea eta Busturialdea lotzen dituen pasabide naturala da. Bizkaiko zaharrena dela uste den galtzada honek, edertasun handiko guneak zeharkatzen ditu eta Eusko Jaurlaritzak kultura-ondasun gisa babesten du. Bermeo, Lekeitio eta Ondarroako arrantza-portuetatik Gasteizera eta Gaztelara arraina zeramaten mandazainak bertatik ibili ziren.

*El Portal de Magunas es un paso natural que comunica las comarcas de Durangaldea y Busturialdea. Considerada la más antigua de Bizkaia, esta calzada atraviesa enclaves de gran belleza y está protegida como bien Cultural por el Gobierno Vasco. Por ella transitaron los arrieros que llevaban el pescado desde los puertos pesqueros de Bermeo, Lekeitio y Ondarroa hacia Vitoria y Castilla.*







Itsaslabar eta hondartzetatik barrualdeko baso eta ibaietara, padureta eta ibai-ibarretatik igarota, Urdaibain aurki daiteke, ziurrenik, Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia- eta ekologia-dibertsitate handiena. Hori dela eta, UNESCOk Biosfera Erreserba izendatu zuen 1984an.

*Desde los acantilados y playas a los bosques y ríos del interior, pasando por las marismas y vegas fluviales, en Urdaibai concurre probablemente la mayor diversidad paisajística y ecológica de la comunidad autónoma de Euskadi. Por ello fue declarada Reserva de la Biosfera por la UNESCO en 1984.*

# TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Durangoko turismo bulegoa<br>*Oficina de Turismo de Durango* | 946 033 938 |
| Gernika-Lumoko turismo bulegoa<br>*Oficina de Turismo de Gernika-Lumo* | 946 255 892<br>646 347 553 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

# Bidezatia / *Tramo*
## MASKAKORTA > GERNIKA-LUMO

km 15,1 **MASKAKORTA.** Bermeorantz jarraitzen duen ibilbide nagusiari jarraitu eta ezkerretara jaitsiko gara Ganbe baserriraino. Errepidea gurutzatu eta Ganbeko elurzulo zaharraren ondotik jarraituko dugu. Bertan, ziurrenik, mandazainak izotzez hornituko ziren garraiatzen zuten arraina kontserbatu ahal izateko. Pista, Golako ibairaino jaisten da, eta Ikadia errotaren ondotik gurutzatuko dugu, Albizera malda handian igotzeko.

km 19,4 **ALBIZ.** Baserri-gune eder hau zeharkatu, eta larre eta baso-sail artean Mendatarantz segituko dugu. Mendatauri herrigunera iritsi baino lehen, paisaiak Urdaibaiko ikuspegi bikainak eskaintzen dizkigu. Espaloi batek Mendatauri eta Elexalde-Mendata lotzen ditu, eta bertan atseden hartu eta hirigune nagusiko zerbitzuez gozatu ahal izango dugu.

km 22,1 **ELEXALDE-MENDATA.** Elexaldetik Lamikiz auzora jaisten da bidea. Bere baserri ederren artean, San Joan eta San Lorentzo ermita nabarmentzen da, sorrerako inskripzioa duen erromaniko aurreko beste leiho eder bat mantentzen duena. Ondoren, beherantz egingo dugu, Berrekondo errekara iritsi arte. Hau ez dugu utziko Gernika-Lumora iritsi arte.

km 29,7 **GERNIKA-LUMO.**

---

km 15,1 ***MASKAKORTA.*** *Seguimos el trazado principal que continua hacia Bermeo, descendiendo a la izquierda hacia el caserío Ganbe. Cruzamos la carretera y continuamos, pasando junto a la antigua nevera de Ganbe, donde probablemente los arrieros se abastecerían de hielo para conservar el pescado que transportaban. La pista desciende hasta el río Golako, que cruzaremos junto al molino Ikadia, para ascender en fuerte pendiente a Albiz.*

km 19,4 ***ALBIZ.*** *Cruzamos el bello núcleo de caseríos, para continuar entre pastos y plantaciones forestales hacia Mendata. Justo antes de alcanzar el núcleo de Mendatauri, el paisaje nos ofrece unas espléndidas vistas de Urdaibai. Una acera une Mendatauri y Elexalde-Mendata, donde podremos descansar y disfrutar de los servicios del núcleo principal de este municipio.*

km 22,1 ***ELEXALDE-MENDATA.*** *Desde Elexalde el camino desciende al barrio de Lamikiz. Entre sus bellos caseríos destaca la ermita de San Juan y San Lorenzo, que conserva otra bella ventana prerrománica con inscripción fundacional. Continuamos descendiendo hasta alcanzar el arroyo Berrekondo, que no abandonaremos hasta llegar a Gernika-Lumo.*

km 29,7 ***GERNIKA-LUMO.***

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

• Etapa honetan beste GR baten (GR Mikeldi) marka gorri eta zuriak aurkituko ditugu. Durangon nola banatzen den ikusiko dugu, Laisiar atsedenlekuaren aurretik berriro elkartu eta Magunaseko atarian berriro banatzeko.

• *En esta etapa nos encontramos con las marcas rojas y blancas de otro GR, el GR Mikeldi. Veremos cómo se separa en Durango para unirse de nuevo antes del área recreativa de Laisiar y separarse de nuevo en el portal de Magunas.*

• Arreta handia jarri basolanekin topo egiten baduzu. Joan zaitez langileengana eta itxaron pausoa eman arte hurbildu aurretik.

• *Extrema la atención si te encuentras con trabajos forestales. Hazte ver por los operarios y espera a que te den paso antes de acercarte.*

• Maume eta Ganbe artean, Astakurutze gainetik igarota, GR 38.1aren saihesbidea banatzen da. Bermeora bazoaz, jarraitu ibilbide nagusiari. Aldiz, Lekeitiora edo Ondarroara bazoaz, har ezazu aipatutako saihesbidea.

• *Entre Maume y Ganbe, pasado el alto de Astakurutze, se separa la variante del GR 38.1. Si te diriges a Bermeo sigue el trazado principal. Si por el contrario te diriges a Lekeitio u Ondarroa, toma la citada variante.*

2021: Covid 19ren pandemian gauden bitartean, eutsi eskuen higieneari eta distantzia sozialari, eta jarraitu agintariek mugikortasunari edo maskaren erabilerari buruz emandako aginduei. Horrez gain, komeni da aldez aurretik egiaztatzea ostatuen eta beste zerbitzu batzuen irekitzeko ordutegiak eta egutegiak.

*2021: Mientras nos encontremos en pandemia de Covid 19, extrema la higiene de manos y distancia social, y sigue las indicaciones de las autoridades referentes a la movilidad o el uso de mascarillas. Además, es recomendable comprobar previamente los horarios y calendarios de apertura tanto de alojamientos como de otros servicios.*

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

